

Hamazazpi

2015eko udazkena



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala

GURASOEN TXOKOAN, ZER BERRI?

LIZARANDA ELKARTE PROFESIONALA

ZABORRAK KUDEATZEAREN GARRANTZIA

ELKARTASUN MENDIAK: 24 ORDU GORBEIAN

ZIGOITIKO I BERDINTASUN PLANAREN HERRI AURKEZPENA

MINTZALAGUN, EUSKARA PRAKTIKATZEKO EGITASMOA, BERRIRO MARTXAN

MARISA ESCUDERORI, ETXAGUENGO BATZARRAREN PRESIDENTEARI ELKARRIZKETA

AUTOBUS 1 LINEA BERRIA: MAIZTASUN HANDIAGOAREKIN ETA ASTEBURUKO ZERBITZUAREKIN

Hasteko...



03 Aldaketak argiteria publikoan

Leds argiak jartzen ari dira kontsumoa gutxitzeko



08 Elkarrizketa ATAL BERRIA!

María Luisa Escudero, Etxaguengo Administrazio Batzarraren Presidentea

Made in Zigoitia



04 Zaborrak kudeatzearen garrantzia

Etxea, herria eta planeta garrantzitsuak al dira zuretzako?



10 Lizaranda elkarte profesionala

Abeltzaintza eta mendi publikoaren alde

Hemen eta orain



06 Gurasoen Txokoa, zer berri?

Seme-alabekin euskaraz jolasteko, ikasteko, hitz egiteko... baliabideak



11 Mintzalagun programa

Mingainerako eta burmuinerako, hobe zina. Baita dibertitzeko ere



07 I Berdintasun Planaren aurkezpena

Euskararen Eguna



12 ELKARTASUN MENDIAK

24 ordu Gorbeian

Staff

HAMAZAZPI. Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2015eko udazkena

Azaleko argazkia: Elena Mota. **Editatzailea:** Zigoitiko Udala_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T_ 945 46 40 41 · www.zigoitia.eus · zigoitia@zigoitia.eus

Koordinazioa eta erredakzioa: Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com

Diseinua eta maketazioa: Hirudesign Web Estudio S.L · www.hirudesign.com

Imprimaketa: Gráficas Irudi · www.graficasirudi.es · **Ale kopurua:** 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08 Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu: www.facebook.com/hamazazpialdizkaria

Aldaketak argiteria publikoan, kontsumoa gutxitzeko

Zigoitiko Udalak aurrera jarraitzen du herrietako argiteria publikoaren aldaketa-lanetan. Lanak iaz hasi ziren eta kontsumo elektrikoa eta, jakina, argiaren faktura gutxitzea dute helburu. Kasu honetan, Udalak antzinako sodio bapozeko lanparak kenduko ditu eta LED bonbillak jarriko ditu herriko erdigunean, A-3604 errepidearen mendebaldean. Lana esleituta dago jada eta fase honetan 75 argi aldatuko dituzte. Hauek lehen ordezkatu ziren 15ei gehituko zaizkie. Hurrengo urteari begira, Udalak proiektu bat aurkeztu du Zigoitiko argiteria publikoaren gainontzeko lanparak aldatu ahal izateko. Aldi berean, Foru Planari, Eusko Jaurlaritzari eta Energiaren Euskal Erakundeari, EEERI, diru-laguntzak eskatu dizkio.



2015eko zerga-ordaintzailearen egutegia

JARDUERA EKONOMIKOEN ZERGA

Borondatezko epea:
2015-11-01 _ 2015-12-31
Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Abenduaren hasieran

ZENTRO OZIOKULTURALEKO IKASTAROAK

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Urtarrilaren lehenengo hamabostaldian

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN ZERGA

Borondatezko epea:
2016-03-01 _ 2016-04-30
Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Apirilaren hasieran

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK

Udaletxea. Telefonoa:
945 46 40 41. Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.
Faxa: 945 46 40 52, e-mail:
zigoitia@zigoitia.eus

Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak

- Kutxabank eta Laboral Kutxaren bulegoetan.
- Internet bidez, web orri honetan: www.zigoitia.eus (Nire ordainketa).

Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak

Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa,

helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

AHOLKUAK

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalar jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

BETEARAZPEN EPEA

Araututako epea bukatu eta hurrengo egunean hasten da eta betearazte-errekarguak, premiamenduzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Etxea, herria eta planeta garrantzitsuak al dira zuretzako? Jarrai ezazu ba irakurtzen

Zaborrak kudeatzearen garrantzia



Landa garbigunea. Argazkia: www.alava.net

Gero eta zabor gehiago sortzen dugu. Gure gizarteak dituen kontsumo maila altuak dira horren arrazoia. Hondakin hauen zati handi bat zabortegietara eramaten dugu; hauek denbora aurrera doan heinean, bete eta erabilezinak bilakatzen dira: ezin dute gehiago jaso. Eta hau arazo bat da, zabor kudeaketa ezegoki batek ingurumenean sortzen dituen kalte larriengatik: ura, zorua eta airea kutsatzen ditu; aldaketa klimatikoa sustatzen du; ekosistemetan eragiten du eta baita giza osasunean ere. Hori dela eta, oinarrizkoa da sortzen dugun zabor kantitateaz ohartzea, ahalik eta gutxien sortzea eta hondakinak ondo bereiztea.

Zigoitian, zabor kudeaketaren zati handienaz arduratzen den erakundea Gorbeia Zaborren Partzuergoa da. Zuiako Kuadrillaren 6 udalerri eta Otxandioko udalerririk bizkaitarririk zerbitzua eskaintzen diena. Duela gutxi arte, edukiontzi griseko hondakinak (hondar frakzioa deitutakoak) Gardelegiko zabortegira eramaten zituzten, Gasteizetik hurbil. Orain, aldiz, Jundiz industrialdeko Hiri Hondakin Solidoen eta Bio-konposten Plantatik igarotzen dira lehenengo. Planta honetan, Gardelegira bidali aurretik, aukeraketa bat egiten da (aldeztu aurreko iragazkia). Egoera berri honek, Zigoitiko herritarrek ordaintzen dituzten zabor tasak haztea suposatuko du, zerbitzuaren garestitze orokorra dela eta. Beraz, beste arrazoi bat gehitzen du hondakinak haien jatorritik ondo eta zehatz bereizteko. Horretarako, jarraian zaborra nola bereiz daitekeen argitzeko, oinarritzko jarraibide batzuk ematen ditugu:

EDUKIONTZI URDINA_PAPERA ETA KARTOIA

BOTA papera eta kartoia (ongi tolesturik ahalik eta espazio gutxien bete dezan): aldizkariak, egunkariak, koadernoak, orriak, kartoizko arrautzontziak...

EZ BOTA briak, zikindutako papera hala nola ezpainzapiak, erabilitako sukalde biribilkiak...

EDUKIONTZI HORIA_PLASTIKOAK ETA ONTZIAK

BOTA plastikoak eta ontziak. **Plastikozko ontziak:** edarien botilak, xaboi poteak, jogurt poteak, plastikozko arrautzontziak, porexpan erretiluak... **Metalezko ontziak:** kontserbatarako latorriak eta freskagarriak, tapak eta tapoiak, txapak, elikagai-tuboak eta hortzak garbitzeko pasta tuboak, aluminiozko paperak, spray eta aerosol hutsak, zuku eta esne briak...

EZ BOTA metalezko kableak, sokak, berotegietako plastikoak, zartagiak, etxeko tresneria elektrikoa, pertxak...

EDUKIONTZI BERDEA_BEIRA

BOTA beirazko botilak: ardoa, freskagarria, ura, likorea edo antzekoak
EZ BOTA beirazko edalontzi apurtuak, zeramikak, ispiluak, bonbillak...

EKO-GASTEIZ OLIO EDUKIONTZIA

BOTA erabilitako sukalde olio (ondo itxita dauden plastikozko botila/ontzietan sartu)



Irudia: ECOEMBES.

EDUKIONTZI GRISA

BOTA birzikla EZINA den zabor guztia: aurreko edukiontzietan bota ezin izan dugun guztia
EZ BOTA belarrik, hostorik edo adarrik

KOOPERA* EDUKIONTZIA

BOTA jostailuak, zuntzak, sakelakoak, zapatak, liburuak... egoera onean baldin badaude. Guretzako erabilgarriak ez diren gauza guztiak baina beste pertsona batzuek berrerabili ditzaketenak.

(*: giza eta ingurumen arloetan lan egiten duen bigarren mailako kooperatiba da Koopera. Bere helburuetako bat berrerabilpena sustatzea da, behar bereziak dituzten pertsona edo kolektiboek objektu hauek erabili ditzaten bultzatuz).

PILAK

Udaletxe eta Zentro Soziokulturalean dituzun berariazko edukiontzietan utzi.

SILOETAKO PLASTIKOAK

Nekazaritza eta abeltzaintza ustiategiak arduratuko dira haiek jasotzeaz. Ez da Partzuergoaren zerbitzu bat.

“ Hondakin bat non utzi behar den zalantza baduzu, onena beti edukiontzi grisear botatzea izango da

LANDA GARBIGUNEA

Hondakin bereziak kudeatzeko Arabako Foru Aldundiaren hornidura bat da. Hemen 4 edukiontzi dituzu: obra txikietan (adreilu, teila, komun-ontzi...) jatorria duten hondakinak; handiak (altzairuak, leihoak, atek...); lorezaintza eta inausketa hondarrak; eta erabilitako motor olioak. Erabiltzeko, giltza eskatu egin behar da aurretik

PUNTU BERDE MUGIKORRA

Aurrekoa bezala, Aldundiak kudeatutako zerbitzu bat da. Aurrekoarekin konparatuta, aldiz, ez da finkoa: etxean, merkatalgo eta enpresa txikietan sortzen diren eta ohiko edukiontzietan bota ezin diren hondakinak jasotzeko, udalerrietatik egun zehatz batzuetan igarotzen den kamioi bat da. Jasotzen dituen zaborren artean: produktua duten aerosolak, bateriak, bonbillak eta fluorezenteak, tinta kartutxoak eta inprimatze tonerrak; Cdak, DVDak, bideo zintak, kasetak, pneumatiko txikiak... Egutegia eta informazioa Udaletxean eta alava.net webgunean kontsulta ditzakezu. Udaletxean edo Zentro Soziokulturalean. Zure datuak eskatuko dizkizute, kontrola erraztearren.



GURE AKATSETATIK IKAS DEZAGUN

Erabilpen txar orokortua dela eta, Udalak eta Herrietako Batzarrek Okoiztan, Zestafan eta Manurgan obra jasotzeko zeuden edukiontziak kendu behar izan dituzte. Mota guztietako hondakinak botatzen ziren eta horrek ezinezkoa egiten zuen Aldundiak egin behar zuen kudeaketa. Beraz, azkenean, neurri hori hartzea beste erremediorik ez da egon.

Udaleko Euskara Zerbitzuaren eta Gizarte eta Kultur Zentroaren eskutik, seme-alabekin euskaraz hitz egiteko, jolasteko eta ikasteko baliabideak dituzu eskuragai

Gurasoen Txokoa, zer berri?

Zentro soziokulturalean sartzeaz bat, ezkerretara begiratzu gero, hantxe dago **GURASOEN TXOKOA**. Gurasoek seme-alaben hazkuntzan erabil dezaketen informazio praktikoa jartzen saiatzen gara bertan, gehienbat hizkuntza-ohiturekin lotuta. Hemendik aurrera izango duzue topagune honen gaineko berri gehiago... Baina, une honetan, zer aurki dezakezu bertan? Adibidez, honelako gauzak:

KARAOKEA, ETXEAN BERTAN

Txantxangorria.eu helbidean, ehundaka kantu aurkituko dituzu, karaokerako moldatuak. Ordenagailu aurrean eseri, play eman, eta kantatzera! Umeekin euskaraz tarte dibertigarri bat pasatzeko aukerarik onenetako bat.



SOKASALTORAKO, KANTU BAT NAHI?

Euskararen txokoa ez da "txokoa" bakarrik. Lau hormaren artetik atera nahi dugu, eta jolas egin... Adibidez, soka-saltoan. Horretarako kantuak eta jolasak irakasten eta ikasten saiatuko gara aurrerantzean. Hona hemen aurrerapentxo bat...:

Guraizeak
nik guraizeak dauzkat
ireki eta itxi
lurra ukitu
zerua ukitu
belauniko jarri
eta irten kanpora



UME TXIKIAK NORANTZAREN KONTRA

Espainiar estatuko errepideetako segurtasun-araudia aldatu dute: ume txikiek autoaren norantzaren kontra joan behar dute lotuta, ezinbestean. Gaiari buruz Cristina Barrosori (www.acontramarcha.com) egin dioten elkarrizketa ekarri dute guraso.eus webgunera. Egin klik, eta irakurri!



Zigoitiko I Berdintasun Planaren aurkezpena

Zigoitiko herritarrek, gonbidatuta zaudete!



Pasa den urtearen bukaeran hasi eta lan handia egin ondoren, Udalak prest dauka jada udalerriko Emakumeen eta Gizonen Aukeren Berdintasunerako I Plana, 2015-2018 epealdirako. Arlo honetan bete behar diren helburuak, gidalerro estrategikoak, eta aurrera joan ahal izateko martxan jarri behar diren hainbat ekintza eta neurri jasotzen dituen dokumentua da. Plana egiteko udalerriko hainbat eragilek hartu dute parte: politikariek, teknikariek eta udalerriko elkarte batzuk. Eta hau da, hain zuzen ere, planaren puntu indartsuetako bat: Zigoitiko herritarrek ordezkatzen dituzten kolektibo desberdinek adostutako eta parte hartutako proiektua dela. Orain populazioari ezagutzera emateko unea

iritsi da. Hori dela eta, datorren abenduaren 10ean jendaurrean aurkeztuko da. Hitzordua arratsaldeko 7:00etan izango da, Zigoitiko Zentro Soziokulturalean.

Orduan, plana zertan datzan azalduko da eta, behintzat asmoa da lanerako talde egonkor bat osatzea (beste eremu batzuetan existitzen diren bezalakoak, Euskara taldea edo Kultura taldea esate baterako), udal ordezkariekin eta teknikariekin batera planaren garapena bultzatzeko. Beraz, deialdia irekita dago interesa daukan edonorrentzat (adina eta sexua aparte utzita). Bakarrik eskatzen da interesa eta pasioa, emakume eta gizonen arteko aukera berdinak eskaintzen dituen gizarte baten alde lan egiteko.

EUSKARAREN EGUNA festaren barruan

Zinema, Txapelparty, antzerkia, dantza...

Urtero bezala, datorren abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da. Eta Zigoitian merezi duen mailako programazioa prestatu dute Udaleko hainbat zerbitzuek eta udalerriko hainbat taldeek. Azaroaren 26an, arratsaldeko 7etan Zentro Soziokulturalean, Donostiako zinemaldian estreinatutako Asier Altunaren **Amama filma** ikusgai izango dugu. Hurrengo astean **Txapelparty** lehiaketaren edizio berri bat jarriko da martxan. Euskararen inguruan urtero abenduan egiten den lehiaketa da; 3 kategoriatan sailkatuta, haurrei, nerabeei eta helduei zuzendutako mota ezberdinak **frogak** egiten dira (galdera-erantzunak, egia-gezurrezko galderak, keinuez adierazi eta asmatu beharreko hitzak edo trebetasuna erakusteko ariketak) -eta, jakina, helburua euskara sustatzea da, baina ondo pasatzea ahaztu gabe, gazteen partaidetza

bultzatzea eta herri osoari zuzendutako jarduera familiarra egitea. Joan den urtean Zigoitiko Gazteek antolatuta eta aurkeztu zuten oso emaitza positiboekin eta aurten ere gazteak arduratuko dira. Urtero abenduan egin ohi da, gabon astean, baina aurten Euskararen Eguna ospatzeko jarduera bezala planteatuta dago. Hori dela eta, abenduaren 4an 6:30ak aldera egingo da Zigoitiko Zentro Soziokulturalean.

Bukatzeko, abenduaren 12an, leku berean, **Hika Teatroak eta Oinkari Dantza Taldeak Itsasoaren emazteak antzezlan** taularatuko du. Hirurogei dantzari, lau musikaririk eta bi aktorek bat egingo dute agertokian istorio bizi eta zիրraragari bat kontatzeko, olatuen joan-etorrian. Euskal dantzak oinarri hartuta, ikuskizunak kostaldeko arrantzaleen emazteen bizipenak erakusten ditu.

María Luisa Escudero, Etxaguengo Administrazio Batzarraren Presidentea

'Apalki, uste dut bizilagun askok ez dutela ezagutzen Kontzejuen garrantzia'

Marisak kontatu digu zertan datzan bere lana Administrazio Batzarrean, 'bizi garen herrien funtzionamendu onerako neurriak eta erabakiak hartzen diren lekuan, hain zuzen ere'



Marisa Etxaguenen bizi da duela 21 urte. 'Gasteizen jaioa naiz, baina BETI NAHI IZAN DUT HERRI BATEAN BIZI. Sentimendu hori nire arbasoengandik datorkit, Kuartangotik datoz eta'.

- Zertan datza zure lana Administrazio Batzarrean? Behar diren ekintza, ekitaldi eta kudeaketa guztietan Administrazio Batzarra ordezkatzean. Besteak beste, Kontzejuak egiteko deialdia egin behar dut; hor azalduko diren puntuak, aldeztu aurretik, aztertze bilerak adostu; eta baita agertzen diren gaiak eta berehala konpondu behar ditugunak ere. Gainera, Udaltaldearen saioen buru izatea, sortzen diren eztabaidak zuzentzea eta bozkatu behar diren kontuak erabakitzea. Eta, batez ere, hartzen diren akordioak betearaztea.

- Zenbat denbora eskaintzen dizute zeregin

Etxaguengo Administrazio Batzarraren Lehendakaria harro dago bere herriaz. Eta nabaritzen zaio. 'Behinola egiten zen bezala eraikitako etxe batean bizi naiz, egurrezko zutabe eta basamentuekin; baratza, lorategia eta bi txakur ditut. Etxaguen Arabako historia dokumentalean 1067tatik aurrera azaltzen da eta euskara denbora gehienez mantendu duen herrietako bat da. Eliza San Agustini eskeinia dago eta odol-ospitalea izan zen, 1936an, Legutioko batailan. Oso hurbil dugu Oketa Mendia (1.031 m.), neguaren hotzetatik babesten gaituena eta Lautadaren eta urtegien bista zoragarriak ematen dizkiguna. Azken finean Etxaguen da leku zoragarria, 'patxada' hitza bere zentzurik zabalenean estimatzeko'. Iaz arte etxetik kanpo egiten zuen lan Marisak, baina orain aldeztu aurretik jubilatuta dago. Bere ustez, 'landagunean bizi izateak abantailak ditu soilik. Gasteiz 14 kilometrotara daukagu, errepide onak dira eta, niretzat, pribilegioa da ingurune zoragarrian bizitzea eta hiritik hain hurbil, behar dudanerako'.

horiek? Dedikazioa egunerokoa da; lanei aurre egitea, diru-laguntzak eskatzea edo, besterik gabe, herriko eguneroko bizitzak dakarrena, nahiko arreta eskatzen du.

- Zenbat pertsona zarete batzarrean? Administrazio Batzarra 4 pertsonak eratuta dago: lehendakaria, lehen eta bigarren Batzordekideak eta Fede-Emalea.

- Iaz 2 urte egin dituzu karguan, zer-nolako balantzea egiten duzu? Positiboa, zalantzarik gabe. Konturatu naiz pixkanaka - pixkanaka eta tematuz, proposatzen duguna lortzen ari garela.

- Zertan ari zarete orain? Eta epe ertainera begira, zeintzuk dira Etxaguengo behar nagusiak? Oraintxe bertan bolatokia berreskuratzen ari gara, gainera herri-bazkariak egin ahal izateko zentro sozial bezala egokitzen ari gara. Geroago, hondakin mota desberdinetarako garbigune bat prestatu nahi dugu, dauden edukiontzia gaizki kokatuta daudelako. Eta kontzejuaren eraikina konpondu, hutsune ugariak dituelako.

- Zer da zure denbora herriari eta auzotarrei eskaintzearen onena? Onena da proposatu ditugun proiektu guztiak aurrera eramaten eta bertakoen bizitza errazten lagundu ahal izatea.

- Eta txarrean? Ez dut aurkakorik ikusten, benetan. Uste osoz hartzen duzu kargua, beraz, sortzen diren ustekabekoak saihesten zoaz.

- Zure iritziz, erakundeek (Udalak, Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak...) ondo tratatzen dituzte herriak? Egin behar dute! Herriak, nahiz kompetentzia desberdinak izan, entitateak diren neurrian ondo tratatu behar dituzte. Baina sortzen den edozein gai edo zeregin tramitatzeko, gehiegizko burokrasia dagoela pentsatzen dut.

- Eta Zigoitiko Udalaren kasuan? Erlazio adeitsuak mantentzen ditugu eta aintzat hartzen gaituztela sentitzen dugu. Eta aipamen berezia egin behar diet Udaleko administrazioari langileei, beraiek baitira hasiera batean gure eskaerak jasotzen dituztenak eta beti kanalizatzen dakitenak.

- Azkenik, zure ustez, zure bizilagunek ezagutzen eta baloratzen dituzte kontzejuak? Administrazio Batzar batean egiten duzuen lanaren garrantzia? Apalki, uste dut bizilagun askok ez dutela ezagutzen. Eta Kontzejuak da, hain zuzen ere, bizi garen herrien funtzionamendu onerako neurriak eta erabakiak hartzen diren lekua.



Aisialdian, Etxaguengo inguruetan zehar paseatzea maite du Marisak eta, bere betebeharrak uzten diotenean, lagunekin eskiatzera joaten da.



Galdere deserosoa

- Zer eskatuko zenieke udaleko arduradunei?

Gobernu taldeari erregutuko nioke, bidezkoa bada, elkarrekin landu behar ditugun gaiak errazteko; adibidez, eskatzen dizkiguten lanak, kontuak, gaiak... aztertze moduari buruzko informazioa helaraziz. Izan ere, garrantzitsua eta ezinbestekoa ikusten dut legealdiaren hasieran gure lana aurrera eraman ahal izateko eta hor bertan sortu daitezken zalantzak planteatu ahal izateko, hitzaldi edo ikastaro bat ematea.

LIZARANDA ELKARTE PROFESIONALA

Abeltzaintza eta mendi publikoaren alde



Koldo Murua, Presidente de Lizaranda.

- Zer da eta noiz jaio zen LIZARANDA ELKARTE PROFESIONALA?

Zigoitiko sektore desberdineko abeltzain talde baten interesak administrazioaren aurrean defendatzeko tresna bat da - azalpena taldeko presidentek eta Ondategiko behi etxalde baten jabeak, Koldo Muruak, eman digu. Elkartea -jarraitzen du- 2008an sortu genuen eta izena, Lizaranda, bere kokapen pribilegiatuagatik sinbologia handia duen larre batetik dator: hezetasuna dauka udan, zabalera ona eta Gorbeiaiko harmailetatik bista zoragarriak.

- Zenbat zarete eta nola funtzionatzen duzue?

Bederatzi bazkide gara, gutxi gorabehera mendi publikoa aprobetxatzen dugun abeltzainen %90a. Eta lan egiten dugu larreetatik etekin hobea lortzeko eta mantentze beharrak iradokitzeko: sasitza kentzea, itxiturak... Urtean behin biltzen gara gutxienez eta baita sektorean eragina duen alarmaren bat edo arazoren bat sortzen denean ere. Gutxi garen gero, harreman hurbila daukagu eta egunerokoa nahikoa da, ezustekoak salbu.

- Proiektu berriren bat esku artean?

Tira, hemen ez dago proiekturik baina gutxienezko udalarekin hitz eginda daude:

sasitza kentzeak, itxiturak, pistak... Esan behar dugu kezkatuta gaudela Parkeak jasaten dituen horrenbeste lege murriztailerekin, orain beste aldaketa bat dator eta. Oso bitxia da, gure nagusiek utzitako ondarea bikaina da baina mendi publikoetako ustiapena gero eta gehiago murriztu nahi dute: Pagadiaren Kudeaketarako Plan berria eta Parke Naturalen arautegi berria, orain murriztaileagoa.

- Nola ikusten duzue zuen ustiatzearen etorkizuna?

Abeltzaintza desagertu egingo da, seguru. Gure mendian gero eta larre gutxiago daude. Arrazoiak? Klima gero eta lehorragoa, larre berriak egiteko debekuak, ongarriketak, basurdeek egindako kalte gero eta neurrigabeagoak. Gainera, gure etxeetan, eguneroko gastuen prezioekin eta duela 25 urteko salmenta-prezioekin belaunaldien arteko erreleboa zaila da, ezinezkoa ez esateagatik. Konponbidea? Beste ezinezko bat: administrazioak sektore hau estrategikotzat hartzea, orain gertatzen ez den moduan, ezta gutxiago ere; eta produkzio kostuak salneurrietara egokitzea.

Info gehiagorako: T_ 635 71 89 70
tocornal2@hotmail.com

Euskara praktikatzeko egitasmoa, berriro martxan

Mingainerako eta burmuinerako, hobe zina. Baita dibertitzeko ere. Animatu Mintzalagun izatera!

Astean ordubetez arituta, hizkuntza gaitasunak hobetzen dituztela aitortzen dute mintzapraktika egitasmoetako kideek. Era berean, euskaraz ondo dakitenen laguntzaren garrantziaz ohartarazi dute. Gaur egun 6.000 mintzalagun daude Euskal Herrian. Zigoitian, 2014-2015 ikasturtean bi talde ibili dira, guztira 10 bat lagun. Zuk ere egitasmoan parte hartzeko interesik baduzu, jarraitu irakurtzen. Pili Aristizabalek, Zigoitiko mintzalagunak, bere esperientzia kontatuko digu eta.

- Zer zara zu, euskalduna ala euskaldun berria?

Ez dakit noiz arte garen euskaldun berriak. Nire ama hizkuntza gaztelera izan den arren, urte pilo bat daramat euskaraz hitz egiten. 16 urterekin hasi nintzen euskara ikasten, Erreterian. Etxean gaztelera hitz egiten genuen, amak euskaraz ez zekielako, baina aitaren aldetik familia euskalduna da eta garbi nuen euskara ikasi nahi nuela.

- Azken urte hauetan, irakasteko moduan aldaketarik ikusi dituzu? Eta kalearen erabileran?

'Euskara Hire Laguna' eta 'Euskalduntzen' metodoekin, besteak beste, ikasi nuen. Orduetik hona asko aldatu dira bai irakasteko moduak, baita giroa eta ikasteko arrazoiak ere. Eta erabileraren aldetik aldaketa handia egon da Araban. Gasteiza etorri nintzenean norbait euskaraz hitz egiten entzuten bagenuen, buelta ematen genuen nor zen ikusteko. Gaur egun Zigoitian %32a euskaldunak gara eta %27a ia euskaldunak; hau da, %59ak euskara ulertzen du, beraz, uste dut baietz, gauzak aldatu direla.

- Zergatik apuntatu zinen mintzalagun programan?

Hasieran 4 lagun apuntatu ginen eta gero beste 2 etorri ziren. Gure helburua izan zen euskararen presentzia herrian zabaltzea eta jende gehiago animatzea programan sartzera. Esan behar dut,



gurea baino lehenago beste talde bat zegoela eta, nik behintzat, beti pentsatzen nuela egunen batean sartuko nintzela talde batean.

- Zure ustez, zertarako balio du egitasmoak?

Aukera polita da lotsa galtzeko eta hitz egiterakoan konfiantza hartzeko. Astean behin elkartzen garen ez du konpromiso handirik eskatzen (ez klase formal batek beste behintzat) eta ekintza atsegina izaten da niretzat. Gure taldean giroa ona da eta gustura egoten gara denak. Normalean Artzegein elkartzen gara, baina eguraldi ona dagoenean paseo bat ematen dugu edo terraza batean eseri.

- Esperientzia gomendatuko zenuke?

Noski! euskara ikasten dabilen jendearentzat oso aproposa da, batez ere euskaltegian urte asko pasa dituen jendearentzat baina hitz egitea kostatzen zaientzat. Guk, talde osoak, jarraituko dugu eta gustatuko litzaiguke beste norbait animatzea eta hirugarren talde bat sortzea Zigoitian. Aprobetxatzen dut animatzeko jendea gurekin elkartzea, aurrean asteartean 17:00etan.

Info gehiagorako:

gorbeialdea@mintzalaguna.org
T_662 12 02 09 (Unai Viana, Zuiako Kuadrillako mintzalagunaren koordinatzailea)

Elkartasun Mendiak _ 24 ordu Gorbeian

Beste 'erokeria eder' bat gauzatu

4 pertsona aulki gurpildunetan eta 3 pertsona itsu Muruko gurutzeraino igo dira kolektibo batek 'mendia aniztasun funtzionala duten pertsonen hurbilazteko' egiten duen borrokari esker



Argazkiak: **Montes Solidarios**.

Gorbeia milioi bat aldiz igo izan da. Baina orain arte, inoiz ez da izan mendizale talde honek egin duen moduan, izan ere, *Elkartasun Mendiak* 2. erronkako protagonistak bilakatu baitziren. Urte oso bateko lanaren ostean (hausnartuz, batzuekin eta besteekin hitz eginez, baimenak eskatuz...), urriko lehen asteburuan 4 pertsona aulki gurpildunetan eta 3 pertsona itsu gurutzeraino iritsi ziren senideen, lagunaren eta bolondresen babesarekin. Haiekin batera, Manuel Iradier elkarteko profesional talde bat, Running Fiz, Zortzietakoak Gaikar, Kirolak Club de Montaña Gasteiz eta Mendi Lasterketako Euskal Selektzioko nesken talde bat. Osotara, ehun lagun baino gehiago. Gehiago, zentzu guztietan: ez zifrarengatik bakarrik, baizik eta haien duintasunarengatik. Txus Ortizen tankerako pertsonak, %84ko minusbaliotasun fisikoduna bera, ia 18 km-ko desnibel positiboan duen bidea ibili zuen besoaren eta anaiaren animoen laguntza bakararekin. Eta Yosú Vázquez bezalakoak, *Elkartasun Mendiak*-ko bultzatzailea, mendiarekiko berak duen zaletasuna arazo fisiko, mental edo emozional

batengatik ezin duten lagunekin partekatzen tematu dena.

'Oso pozik eta harro'

Yosuri atzera begiratzea eskatzen diogu eta 'erokeria eder' (berak izendatu duen moduan) hori betetzean nola sentitu ziren gogoratzea. 'Oso pozik, harro eta biziki kontent. Gurutzeraino heltzea burutik pasatu ez zitzaien pertsonekin iristea lortu genuen. Inoiz igo ez zuten senide eta lagun asko atxikitzea lortu eta baliteke aukera honengatik izan ez balitz inoiz ez egin izana', azaldu du. Probaren gogortasun fisikotik haratago, ezaxolakeria gaitzitea da esfortzu gehien eskatzen duena. 'Oso konplexua da gure gizarteko erakunde garrantzitsuen engaiamendua lortzea. Ate asko jo ditugu eta gehienek ez gaituzte ezta entzun ere egin'. Hori dela eta, jasotako babes guztiak eskertu nahi ditu. 'Arabako Mendizale Federazioak funtsezko paper bat izan du guztia antolatzeke momentuan. Hornidurarentzako Carrefour, Artepan, Exclusivas Perdiz eta Maxim-en laguntza izan dugu. Guikuri landetxeak

apartamentu bat utzi zigun 24 ordu baino gehiago han egon ginen gidari batzuek atsedean hartu ahal izateko. Luxuzko elkarlan bezala, Zigoitiko Udalak asko erraztu zizkigun kontuak eta Ertzaintzaren erreskate taldea momentu oro erne ibili zen eta helikoptero bat erronkaren une batean hurbilazteko zuten'.

Behin euforia igarota, *Elkartasun Mendiak* jada bere hurrengo erronkan lanean dabil buru-belarri. Yosú Vázquezek nahiz eta ezer jakinarazi nahi ez duen, aitortzen du, gustuko izango zuela aniztasun funtzionala duten umeengan fokalizatzea. 'Haiengan sinesten dudalako, etorkizuna izateaz gain, bizitza gainerako gizartearekin inklusio osoan gozatu ahal eta behar dutela. Ametsak errealitate bilakatzeko lan egin nahi dugu' bukatu du.



info +: www.montesolidarios.wix.com/montes-solidarios

Azaroak 29 Igandea, eskola Kross lasterketa

Bengolarran Eskola Atletismo Lehiaketaren proba bat egingo da

Atletismoa Arabako landatar eremuetara eramateko asmoz, Vitoria-Gasteizko Zailu Klubak Kross proba bat ekarriko du Zigoitira. Iaz Etxabarrí-Urtupinan lasterketa bat lehiatu bazen, aurten Bengolarran korrituko da zirkuitu markatu batean. Azaroaren 29an, igande goizez, aurrebenjamin, benjamin, kimuak eta haurren



Iosu Izuskitza, DOWN ARABA Elkarteko Presidentea – ISABEL ORBE

'Esaten dugu minusbaliotasun bat duten pertsonak direla, bere eguneroko jardueretan normaltasunez moldatzeko topatzen dituzten zailtasunengatik, beste alde batzuetan, berriz, arazorik ez duten arren. Baina, hori dela eta, ez dira minusbaliatuak! Are gehiago, topatzen dituzten harresi gehienak ez dira haien minusbaliotasunarengatik: haien inguruan gabiltzan guztion buruan daude. Askotan gainerakoak gara haien oztopo nagusia planteatu ditzaketen helmugetara iristeko. *Elkartasun Mendiak* horren proba da. Eta erakusten ari zaigu zein den jarraitu beharreko ibilbidea, zein den erabili beharreko *errezeta*: amets egin, laguntzak eta babesak bilatu, saiatu eta orduan... lortu ahalko duzu!'

(13 urte bitarteko neskek eta mutilak) mailako hainbat ikaslek bisitatuko gaituzte. Lehiaketa Arabako Foru Aldundiak bultzatua da eta proba eta kirol hau sustatzeko xedearrekin, Zigoitiko umei parte hartzeko aukera eskaintzen die. Horretarako, eskolaren bitartez izena eman behar dute, ezinbestekoa den aseguruia izateko.

Lore dardaratiak: 'Kontatuko didazu ipuin bat?'

Animatu eta etorri! Ez ditugu profesionalak behar, bakarrik keinu egia bat



Testu eta argazkien hautaketa: **Javier Arbulu**

'Lagunok, lan erraz eta simple baterako, aire eta lurraren arteko mugan, elurrak elurrari itxaroten dio'. Berrito ere, René Char da, bere Hipnos-en orrietako 44. olerkia.

'Lagunok', Zigoitiko Liburutegian ilusioz betetako lana zain daukagu. Ikasturtea *Kontatuko didazu ipuin bat? / ¿Me cuentas un cuento?* programarekin hasi dugu, kontatzeko xumetasuna, ahozko tradizioa eta ipuinak, kondairaketa istorioak antzinako transmisioaren bidez berreskuratzeko asmoz.

'Lagunak', ipuin horiek ekarriko dizkigutenak liburutegiko lagunak izango direlako. Boluntario dardaratiak, oraingo, Helena, Ana, Chema, Susana, Juantxo, Laura, Sonia, Amaia, Juanjo, Aritz, Sonia, Nacho, Leticia... izenekoak. Beren laguntzarik gabe - ezeren truke eskatu barik dena ematen duena-, gure esfortzua alferrik izango litzateke. 'Oraingo', kontalari gehiagoren zain gaudelako; behar ditugu eta. Izan ere 'lan erraza eta sinplea' da nahi duguna delako ipuinak bihotzaren leiho gardenetik kontatzea; bitartekorik, zailtasun elektronikorik, tresna eramangarrien tartekaririk, teknologia berririk... gabe. Internetik, wifirik edo

inguratzen gaituzten edozein *etsai intimorik* gabe. Ez da beharrezkoa ezer jakitea, ez ditugu profesionalak behar, bakarrik keinu egia bat.

Elurraren zain

'Elurra elurraren zain dago', liburutegia gune komuna delako eta primeran litzatekeelako hastea, norbere bere estiloarekin eta bere modura (badakizue, ez daude bi elur-maluta berdin), baina benetan nahastuta; azarotik apirilera arteko ipuinak kontatuko ditugulako eta, beti bezala, Gorbeia inguruetan elurrak lursailak elikatu ditzan zain gaudelako; ipuinak kontatuko dizkiegulako gure neska-mutilei, betiko eta etengabeko mugimendurekin bueltatzen den eta berrito bueltatzeko altxatzen den elurraren miraria diren gure neska-mutilei; opari eta dohainen transmisioaren hari zaharrari jarraitzeko asmoa daukagulako; belaunaldiak bata bestearen atzean etortzen direlako, baina lurdimenaren eta Fantasia beti egongo direlako gurekin.

Nork ez du amets egin behar inguratzen gaituen mundua ulertu ahal izateko? Ipuin on guztiak egiazkoak dira; ipuineko otsoek eguneroko

otsoei aurre egiten lagutzen digute; maitagarriek gurekin dauden maitagarriak antzematen; edo baita aliatu zaharrak ere, etsai leialen edo hain leialak ez direnen postuak erakutsiz.

'Aire eta lurraren arteko mugan', guk ere, elur-malutak bezala, muga lekua hartzen dugulako, zeruztatuta eta lohizatuta, gure kondizioaren ezaugarriei uko egin gabe. Elurrak beti ekartzen digulako suaren orotzapena eta azken finean horretan datza, su pixka bat eta konpainiaren beroa partekatzean. Mundua sorgintzen duen ahots hurbila, berme gehiagoz aurre egiteko erreminta baliogarri batzuk ematen dizkiguna, utilitarismoan -gure denboraren izurri horretan- erori gabe. Batez ere, helburua izango delako kontatzen dutenek eta baita entzuten dutenek ere disfrutatzea.



Bengolarra. 'Elurrak elurrari itxaroten dio'.



Juankar Alonso, 'palabras' hitza 'palabros' baino nahiago duen psikologoa.

Programa hasi da jada, joan den urriaren 21ean Juankar Alonso etorri zen eta. Juankar psikologo humanista zintzoa da, 'palabras' hitza 'palabros' baino nahiago duena. Nortasunaren garapenerako lurdimenaren eta Fantasiaren balioa kontuan ez hartzearen arriskuaz ohartarazi zigun; zer den kaltetzen dena eta zer galtzen den. Erakutsi zigun nola bi Lagun Eder horiek gure barnealdearekiko loturak egiten laguntzen diguten, gainerakoekin enpatizatzen, bakarrik egoteko zer den ikasten, gure maitasunak lantzen, maite dugun hura eta izutzen duguna. Emanaldian ipuinak egon baziren ere. Ikasturte honetako lehenengo ipuinek ondo berotu zizkiguten eskuak eta espirituak, ikasturte honetako lehenengo gaitzainak.



Eugenia Manzaneraren bisitak 'Mieditis' eragin zigun.

Azaroaren 11n Eugenia Manzanera izan zen ipuin batzuk bi saiotan hurbildu zizkiguna, pertsona helduentzako bat eta umeentzako beste bat. Honela, Juankar eta Eugenia programaren aitabitxi eta amabitxi izan dira eta baita gainontzeko kontatzaile-banda zoriontsu honena ere; banda zabalaren eta transferentzia digitalen garaian, hain lekuz kanpo dagoen erotasun honetara su pixka bat ekarriz. Programa hauskorra da, horregatik laguntza eskatzen dizuegu: animatu seme alabak ipuinak entzutera etortzeko. Hurbildu entzutera. Hurbildu kontatzerara edo zuen etxean ere kontatu, ikusi ahal izateko, Galeanoren kontaktetan bezala, *su txiki dardartidun itsaso* bat, orbangabeko elurtea.

Garraio publikoan hobekuntza Vitoria-Gasteiz/Zigoitia 1 Linearekin

Linea berria abian jarri da, maiztasun handiagoarekin eta asteburuko zerbitzuarekin

Udalerriko garraio publikoan ordutegi eta maiztasun berriak eskuragai ditugu, urriaren 26an martxan jarritako Vitoria-Gasteiz / Zigoitia 1 linea delakoari esker. Maiztasunak handitu dira: lanegunetan, lehen zeuden 3 edo 4 zerbitzuetatik oraingo 7etara pasatu da; asteburuetan ez zegoen autobusik eta

orain, aldiz, 4 zerbitzu eskaintzen dira. Beste berritasun garrantzitsu bat da autobusak Etxebarri Ibiña herrian geldituko direla, bertako 300 herritarren beharrei erantzunez. Beste lau herritan, Buruagan, Manurgan, Okoiztan eta Zestafan, erabiltzaileek aldeaz aurretik eskatuz gero bakarrik geldituko dira.

ZIGOITIA
|
GASTEIZ/
VITORIA

ZESTAFE	OKOIZTA/ACOSTA	ETXAGUEN	MURUA	LARRINDA	MANURGA	GOPEGI	ERIBE	BURUAGA	BERRIKANO	APDOAKA	ETXABARRI IBIÑA	GORBEA UERBA-TARTEZADUENA / C. COMERCIAL	GASTEIZ/VITORIA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>													
*	*	06:50	06:53	06:55	*	06:58	07:01	*	07:04	07:08	07:15	07:17	07:26
*	*	08:20	08:23	08:25	*	08:28	08:31	*	08:34	08:38	08:45	08:47	08:56
*	*	09:50	09:53	09:55	*	09:58	10:01	*	10:04	10:08	10:15	10:17	10:26
*	*	14:30	14:33	14:35	*	14:38	14:41	*	14:44	14:48	14:55	14:57	15:06
*	*	16:00	16:03	16:05	*	16:08	16:11	*	16:14	16:18	16:25	16:27	16:36
*	*	18:45	18:48	18:50	*	18:53	18:56	*	18:59	19:03	19:10	19:12	19:21
*	*	21:55	21:58	22:00	*	22:03	22:06	*	22:09	22:13	22:20	22:22	22:31
LARUNBAT IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SÁBADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>													
*	*	09:55	09:58	10:00	*	10:03	10:06	*	10:09	10:13	10:20	10:22	10:31
*	*	12:45	12:48	12:50	*	12:53	12:56	*	12:59	13:03	13:10	13:12	13:21
*	*	15:55	15:58	16:00	*	16:03	16:06	*	16:09	16:13	16:20	16:22	16:31
*	*	22:00	22:03	22:05	*	22:08	22:11	*	22:14	22:18	22:25	22:27	22:36

1
GASTEIZ/
VITORIA
|
ZIGOITIA

GASTEIZ/VITORIA	GORBEA UERBA-TARTEZADUENA / C. COMERCIAL	ETXABARRI IBIÑA	APDOAKA	BERRIKANO	BURUAGA	ERIBE	GOPEGI	MANURGA	LARRINDA	MURUA	ETXAGUEN	OKOIZTA/ACOSTA	ZESTAFE
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>													
07:35	07:44	07:46	07:53	07:57	*	08:00	08:03	*	08:06	08:08	08:11	*	*
09:05	09:14	09:16	09:23	09:27	*	09:30	09:33	*	09:36	09:38	09:41	*	*
13:45	13:54	13:56	14:03	14:07	*	14:10	14:13	*	14:16	14:18	14:21	*	*
15:15	15:24	15:26	15:33	15:37	*	15:40	15:43	*	15:46	15:48	15:51	*	*
18:00	18:09	18:11	18:18	18:22	*	18:25	18:28	*	18:31	18:33	18:36	*	*
21:10	21:19	21:21	21:28	21:32	*	21:35	21:38	*	21:41	21:43	21:46	*	*
LARUNBAT IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SÁBADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>													
09:10	09:19	09:21	09:28	09:32	*	09:35	09:38	*	09:41	09:43	09:46	*	*
12:00	12:09	12:11	12:18	12:22	*	12:25	12:28	*	12:31	12:33	12:36	*	*
15:10	15:19	15:21	15:28	15:32	*	15:35	15:38	*	15:41	15:43	15:46	*	*
21:15	21:24	21:26	21:33	21:37	*	21:40	21:43	*	21:46	21:48	21:51	*	*

* HURBILTZA / ACERCAMIENTO